

7. FUNTSEZKO BALIABIDEAK – INKLUNET

INKLUNET proiektuak behar bezala funtziona dezan, ezinbestekoa da hainbat baliabide ukigarri eta ukiezin izatea. Baliabide hauek funtsezkoak dira proiektua garatzeko, erabiltzaileengana iristeko eta diru-sarrerak sortzeko. Baliabide fisikoak proiektua digitala izan arren beharrezkoak dira; besteak beste, ordenagailuak eta mugikorrak aplikazioa diseinatu, probatu eta mantentzeko, zerbitzariak eta hodeiko sistema bat INKLUNET 24/7 martxan eta seguru egoteko, eta grabazio materiala (kamerak, mikrofonoak) Zeinu Hizkuntzako bideoak eta tutorial irisgarriak sortzeko.

Proiektuaren benetako "balioa" sortzen duten baliabide intelektualak elementu ukiezinak dira. Hauek aplikazioaren kontzeptua eta diseinua biltzen dituzte, bere irisgarritasun ezaugarriekin (azpтитuluak, ahots bidezko nabigazioa, Zeinu Hizkuntza txokoa), baita INKLUNET marka eta komunitate inklusiboagoa ere. Horrez gain, irisgarritasun digitalari, aniztasun funtzionalari eta komunikazio errazari buruzko gure ezagutza eta ONCE, ASPACE, edo FEKOOR bezalako elkarteekin ditugun kontaktu eta harremanak ere baliabide intelektual garrantzitsuak dira, haien esperientziak proiektua aberasten duelako.

Giza baliabideak ezinbestekoak dira proiektua abian jartzeko eta hazteko. Horien artean daude aplikazioa sortu eta eguneratzeko garatzaileak eta diseinatzaileak, azpтитulugintzan eta Zeinu Hizkuntzan trebatutako profesionalak, komunitate seguru eta errespetuzkoa mantenduko duten moderatzaileak, komunikazioa eta sare sozialak kudeatuko dituen taldea, eta antolakuntza eta kudeaketa orokorra zainduko duten pertsonak. Azkenik, finantza baliabideak beharrezkoak dira INKLUNETUNET martxan jartzeko eta etorkizunean mantentzeko. Diru iturri horien artean aurki daitezke udal, foru edo estatuko dirulaguntzak (irisgarritasunarekin eta inklusioarekin lotutako proiektuetarako), elkarte eta erakundeen harpidetzetatik etorriko diren diru sarrerak, enpresekin lortutako babesletzak edo lankidetzak akordioak, eta komunitatearen bidezko crowdfunding edo dohaintzak.

FUNTSEZKO JARDUERAK



BIBLIOGRAFIA:

- García,B.-Tena, D.-Bernabeu, M^a E.- López, C. (2025). Itinerario personal para la empleabilidad. TULIBRODEFP.
- STARTINNOVA plataformako material.
- <http://blog.hubspot.es/sales/modelo-canvas>
- Logoa: Lucia ia